

Bizkaiko Foru Aldundiaren Aurrekontuak 2017



Aurkibidea:

- Zer da Foru Aurrekontua?
- Zelan onartzen da?
- Diru sarrerak
 - Diru-bilketaren aurreikuspena
 - Tributu itunduak
 - Gainerako sarrerak
- Bildutakoaren banaketa
- Gastuak
 - Banaketa gastu-arloka
 - Babes eta sustapen sozialeko jarduketak
 - Jarduketa ekonomikoak
 - Kultur eta kirolako ondasun publikoak
 - Oinarrizko zerbitzu publikoak
 - Jarduketa orokorrak
 - Zor publikoa

Zer da Foru aurrekontua?

Bizkaiaren **baliabide ekonomikoak** urtebetean zehar **kudeatzeko** balio duen **tresna** bat da.

Aurrekontuan, **aurreikuspena** egin behar da lortu ahal diren sarrerekin eta urterako gehieneko gastuak ere finkatzen dira; hala, aurreikusitakoa baino sarrera handiagoak lor daitezkeen arren, ezin izan dadin aurrekontuan jasotakoa baino gehiago gastatu.

Dinamikoa da. Aldatu egin daiteke urtean zehar, baina oso marjina txikia dago aldatzeko.

Sarrerak eta gastuak **orekatuta** egon behar dira onartu ahal izateko.

Zelan onartzen da?

1. Ogasun Sailak gasturako ildoak onartzen ditu, jardunbideak zehazten ditu. (Ekaina)
2. Sailek lehenengo proposamen bat egiten dute. (Uztaila)
Urriaren bukaeran Euskal Finantza Kontseilua biltzen da. Bertan sarreren aurreikuspena finkatzen da
3. Aurrekontu-proiektua Gobernu Kontseiluan onartzen da, urriaren 31a baino lehen, eta Batzar Nagusiei helarazten zaie, haren gainean eztabaidatzeko. (Urria)
4. Talde politikoek informazio-batzordeetan aztertzen dute aurrekontu-proiektua, eta zuzenketak egiten dizkiote. (Azaroa).
5. Herritarrek 10 egun dituzte parte hartu eta aurrekontu-proiektuari ekarpenak egiteko. Proposamen horiek talde politikoei helarazten zaizkie, kontuan har ditzaten. (Azaroa)
6. Osoko zuzenketak osoko bilkuran bozkatzeko dira, eta zuzenketok gehiengoa lortuz gero, aurrekontua luzatu egiten da. Osoko zuzenketarik ez badago edo gehiengoa lortzen ez badute, zuzenketa partzialak bigarren osoko bilkura batean eztabaidatuko dira. (Abendua)
7. Eztabaidaren ondoren, aurrekontuak bozkatzeko dira. Gehiengo nahikoa lortzen badute, onartutzat jotzen dira; bestela, luzatu egiten da aurrekontua.

DIRU-SARRERAK


Bizkaiko Foru Ogasunak egiten duen zerga-bilketatik datoz diru-sarrerak.

Estatuan dauden bost ogasunetako bat da Bizkaiko Foru Aldundia. Beraz, Bizkaian Aldundiari dagokio gero Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko udalen eta Foru Aldundiaren beraren artean banatuko diren baliabide ekonomikoak biltzeko ardura.

Diru-bilketaren aurreikuspena: 7.394.679.473€

Sarrerak talde handi bitan antolatzen dira:


- **Tributu itunduak**; diru-sarrera iturri nagusia dira (batez ere BEZa, PFEZ eta zerga bereziak).
- **Gainerako sarrerak**; batez ere tasak, prezio publikoak eta beste instituzio batzuetatik jasotzen diren transferentziak dira.



TRIBUTU ITUNDUAK.


Zergak zein tasak eta haiei lotutako zehapenak dira tributu itunduak, eta horiek guztiak baimentzea eta biltzea Foru Aldundiaren eskumena da, Ekonomia Itunaren arabera.

- Zuzeneko zergak: PFEZa, sozietateen gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, etab.
- Zeharkako zergak: BEZa eta zerga bereziak.
- Tasak eta zehapenak.




Tributu itunduak: Zuzeneko zergak. 3.421.394.940€

Pertsonak (pertsona fisikoek) edo enpresek (pertsona juridikoek) errentak edo ondarea lortzeari aplikatzen zaizkion zergak dira. Zerga hauen artean nagusia PFEZa da, errentaren gaineko zerga deitzen dena .




Tributu itunduak: Zeharkako zergak. 3.594.636.500€

Zerga horiek kontsumoa kargatzen dute. Halako zergen arteko nagusia BEZa da, eta salerosketei zein zerbitzu-prestazioei aplikatzen zaie. Horrez gainera, alkohola, tabakoa eta hidrokarburoak kargatzen dituzten zergak ere badaude.



Tributu itunduak: Tasak eta zehapenak. 67.250.000€

Tasak dira tributu batzuk ordaintzen direnak edo onura pribatua lortzen delako ondasun edo zerbitzu publiko batetik edo jarduerak gauzaten direlako zuzenbide publikoko erregimenean (jokoaren gaineko tasen kasuan, adibidez). Hemen sartzen dira, orobat, premiamendu-errekarguaren ondoriozko sarrerak, berandutze-interesak eta zehapenak.



GAINERAKO SARRERAK: 311.398.033€


Eskatzen diren maileguak (zorpetzea) direla-eta lortzen diren sarrerak, tasak eta prezio publikoak zein zerbitzu-prestazioengatik eta beste arrazoi batzuegatik beste administrazio batzuetatik jasotzen diren transferentziak dira sarrera hauek.



BILDUTAKOAREN BANAKETA.

2017. urtean biltzeko aurreikusita dauden 7.400 milioi euroak batez ere Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko udalen artean banatuko dira.

Eusko Jaurlaritzaren atalean, Kupoa sartzen da. 380 milioi euro ingurukoa.



GASTUAK

Urteko aurrekontuko sarrera osoak ezin dira diru-sarrerak baino handiagoak izan.


Aldundiak 1.500 milioi euroren gastua egiten du urtero, gutxi gorabehera, eta 1.500 milioi horietarik 200 soldatak ordaintzeko erabiltzen dira. Beraz, 1.300 milioi euro inguru geratzen dira gainerako gastuetarako, baina kontuan hartu behar da Aldundian lan egiten duten pertsonaren lana ezinbestekoa dela Aldundiak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak eskaintzeko.

Bada, Bizkaiko Foru Aldundiak ematen dituen zerbitzu publiko horiek guztiak gastu-programen bidez garatzen dira, eta legegintzaldi honetan zortzi sailen inguruan antolatuta daude.

1.569 milioi euro

Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean
kudeatzen duena

BANAKETA GASTU ARLOKA



BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK.

436.448.505€

Atal honetan 437 milioi euro daude, eta adineko pertsonak, mendetasuna duten pertsonak zein desgaitasuna duten pertsonak babestu eta zaintzeko erabiltzen dira. Berdintasunaren eta enpleguaren sustapena.

Baita horren guztiaren kudeaketa, balorazio-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuetako ikuskaritza ere.


[Zehaztasun gehiago](#)



Jarduketa ekonomikoak.

527.814.183€

Atal honetan 528 milioi euro daude, eta, nagusiki, hauekin lotuta daude: errepideen kudeaketa, errepide berriak, garraio publikoa (Bizkaibusa eta metroa), berrikuntza eta enpresen sustapena, eta administrazioaren modernizazioa.



[Zehaztasun gehiago](#)

[Aurkibidera joan](#)

KULTUR ETA KIROL IZAERAKO ONDASUN PUBLIKO, 46.979.858€

47 milioi euro inguru dira, eta erabiltzen dira, hain zuzen, Bizkaiko museoetan, euskararen eta kulturaren sustapenean eta Bizkaiko kirolari laguntzeko.



[Zehaztasun gehiago](#)

[Aurkibidera joan](#)

OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK: 40.799.499€

41 milioi euro inguru dira: Bizkaiko suhiltzaile-etxeetan, ingurumenaren babesean eta lurraldearen kudeaketa zein antolamenduan erabiliko dira.



JARDUKETA OROKORRAK.

321.951.778€

322 milioi euro inguru horiek BFaren administrazio orokorreko gastuak, gastu informatikoak, tributu-kudeaketako, pertsonaleko eta gobernu-organoen gastuak dira (Batzar Nagusiak barne).

[Zehaztasun gehiago](#)

ZERBITZU OROKORRAK
235.263.211€

FINANTZA ETA
TRIBUTU
ADMINISTRAZIOA
72.839.554€

GOBERNU ORGANOAK ETA
BATZAR NAGUSIAK
13.389.013€

[Aurkibidera joan](#)

Zor publikoa: 195.574.201€


Beste gastu-eremuetako bat zor publikoa ordaintzeko da, eta, 2017. urterako, 195,5 milioi eurotan zenbatesten da.

Zor hori ordaintzeko BFAREN aurrekontuaren % 12,4 erabiltzen da, gutxi gorabehera.

GASTU-EREMUEN XEHETASUNAK


Babes eta sustapen sozialeko jarduketan xehetasunak.

Hauek dira hemen sartzen diren gastuak: adinekoentzako, mendetasuna duten pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako babes sozialeko gastuak, gizarte-inklusionarako programak, haurrei lotutakoak edo berdintasunerako edo lankidetzarako politikak.




Jarduketa ekonomikoen xehetasunak.

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza. Baliabide naturalak kontserbatzeko gastuak hemen sartzen dira, esaterako, parke naturaletakoak, baita landa-garapenerako laguntza zein abere- eta landare-ekoizpen eta osasunerako laguntza (basoak eta mendiak) ere.




Jarduketa ekonomikoen xehetasunak.

Industria, energia eta teknologia berriak. Enpresen berrikuntzari eta nazioartekotzeari laguntzeko, talentua babesteko eta enpresen sustapenerako gastuak hemen sartzen dira.



Jarduketa ekonomikoen xehetasunak.

Bide- eta ingurumen-azpiegiturak. Errepideak mantentzeko eta kontserbatzeko zein bide berriak eraikitzeko gastuak, bide-segurtasunari lotutako gastuak, etab. hemen sartzen dira.




Jarduketa ekonomikoen xehetasunak.

Ikerketa, garapena eta berrikuntza. Bizkaiko Foru Aldundiak ikerketari laguntzeko egiten dituen gastuak hemen sartzen dira. Bizkaia Katedra proiektuaren inguruan biltzen dira, eta 279.138 € dira.


Jarduketa ekonomikoen xehetasunak.

Beste jarduketa batzuk. Administrazioa modernizatzeko gastuak, burokrazia murriztekoak, gobernamendu ona eta gardentasuna garatzekoak hemen sartzen dira, bai eta datuen zein informazioaren segurtasuna eta tratamendua ere.



Jarduketa ekonomikoen xehetasunak.

Garraio publikoa. Zerbitzuaren gastuak eta garraio publikoaren azpiegitura mantentzeko gastuak hemen sartzen dira; funtsean Bizkaibusak eta metroak eragindakoak dira.




Jarduketa ekonomikoen xehetasunak.

Turismoa eta Bizkaia sustatzea. Turismoa sustatzeko gastuak eta gure lurraldearen industria turistikoari laguntzeko gastuak hemen sartzen dira. Programa honek 4.801.074 euroko zuzkidura dauka.

[Itzuli](#)


Kultur eta kirol arloko ondasun publikoak ekoizteko jarduketan xehetasunak.

Hemen nabarmentzen direnak Bizkaiko museoentzat diren partidak zein kultura eta euskara sustatzekoak dira. Halaber sartzen da hemen kirol federaturako eta aisialdiko kirolerako ematen den laguntza.




Jarduketa orokorren xehetasunak.

Finantza eta tributazio administrazioa. Zerga-bilketa kudeatzeko zerbitzuak, aurrekontua egitekoak, katastroa eta iruzurraren kontrako borrokarako ikuskaritza fiskala sartzen dira hemen.



Jarduketa orokorren xehetasunak

Gobernu-organoak. Atal honetan sartzen dira, hain zuzen, Batzar Nagusiei beren funtzionamendurako egiten zaion ordainketa, komunikazio-gastuak, kanpo ekintzakoak eta ikerketa.



Jarduketa orokorren xehetasunak

Zerbitzu orokorrak. Atal honetan, administrazio orokorreko gastuak, plan informatikoa, pertsonal-gastuak, etab. sartzen dira.

